




Afiliazioa %1,0 hazi zen otsailean

Gizarte Segurantzako afiliazioa Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak



Iturria: Gizarte Segurantzak.

Otsailean, Gizarte Segurantzako afiliazioa %1,0 hazi zen, aurreko urteko hil berarekin alderatuta.

Guztira, 1.028.407 afiliazio zenbatu ziren, otsail batean erregistratutako kopururik altuena. Urtarrilean bezala, gizonezkoek (%1,1) emakumezkoek (%1,0) baino bilakaera hobea izan zuten.

Langabezia erregistratua jaitsi zen urte arteko tasan

Langabezia erregistratua Urte bakoitzeko otsaila. Milakoak




Iturria: Lanbide.

Lanbideren bulegoetan erregistratutako langabezia %1,9 murriztu zen aurreko urteko otsailaren aldean. Kopuru absolututan, 106.994 pertsona zeuden langabezian, 2008tik otsail batean jasotako mailarik baxuena. Jaitsiera hori gizonezkoen (-%2,3) eta emakumeen (-%0,6) artean emandako murrizketek bultzatu zuten.



IPIa %1,0 murriztu zen urtarrilean urte arteko tasan

Industria produkzioaren indizea (IPI)
Urte bakoitzeko urtarrila




Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako informazioaren arabera, **urtarrilean Euskadiko industriaren produkzioa aurreko urteko hilabete berean erregistratutakoa baino %1,0 txikiagoa izan zen**. Ondasun mota guztien produkzioa murriztu zen. Konsumo-ondasunek eta ekipo-ondasunek %1,4 egin zuten behera, eta bitarteko ondasunek %1,3. Energia izan zen hazi zen bakarra, %4,4ko igoerarekin.

Europako langabezia tasa minimoetan kokatu da

Langabezia tasa euroaren eremuan
Ehunekoak



Iturria: Eurostat.

Urtarrilean, euroguneko langabezia tasa %6,1era jaitsi zen, 2025eko amaieran izan zuen maila baino hamarren bat gutxiago eta orain arteko erregistrorik baxuena. Horrela, langabezia-tasa %6,0 inguruan egonkortu da. Europar Batasun osoan, tasa %5,8koa izan zen, minimo historikoetan hau ere, aurreko hilabeteen aldean pixka bat jaitsi ondoren.